


Arquitectura y Diseño Interior Sostenible: Aplicaciones prácticas de los ODS



Uda Ikastaro honen helburu nagusia parte-hartzaileei tresna praktikoak eta ezagutza aplikagarriak ematea da, arkitektura eta diseinu proiektuetan Garapen Jasangarrirako Helburuak txertatzeko.

Eka. 19 - Eka. 20 2025

Kod. A03-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 19 - Eka. 20 2025

Kokalekua

1. EGUNA Miramar Jauregia eta 2. EGUNA HABIC Enpresa Gela (UPV/EHUko Arkitektura Eskola Teknikoa)

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Uda Ikastaro hau arkitektoek, diseinatzaileek, ikasleek eta sektoreko profesionalek beren proiektu arkitektonikoetan Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) txerta ditzaten trebatzeko diseinatuta dago, teoria, tresna digitalak eta lankidetzak tailerrak uztartuz.

Ikastaroaren bi egunetan, GJHak eta haien garrantzia testuinguruan jartzen dituzten saio teorikoak eta tailer praktiko eta lankidetzakoak uztartuko dira; lansio horietan, parte-hartzaileek tresna digitalak eta metodologia berritzaileak aplikatu ahal izango dituzte. Realak Zubietan dituen kirol instalazioak ere bisitatuko dira, erakunde hau bere instalazio berrietan GJHak nola aplikatzen ari den ezagutzeko.

Ikastaro honen azken helburua parte-hartzaileei GJHak arkitektura- eta diseinu-proiektuetan txertatzeko tresna praktikoak eta ezagutza aplikagarriak ematea da, enpresa kudeaketaren eta produktuaren garapenaren eremuan, gizartean eta ingurumenean inpaktu positiboa sustatuz. Gainera, profesionalen eta parte-hartzaileen artean ideiak eta esperientziak trukatzeko gunea sortu nahi da, berrikuntza eta jasangarritasuna diseinu arkitektonikoaren funtsezko zutabe gisa sustatuz.

Helburuak

Arkitekturan eta diseinuan jasangarritasuna sustatzea: Parte-hartzaileak GJHak hiri-diseinuan, -eraikuntzan eta -plangintzan txertatzeko gaitzea.

Tresna praktikoak ematea: Proiektuetan, GJHak identifikatzeko, ebaluatzeko eta lehenesteko baliozkoak diren metodologiak eta teknologiak erakustea.

Arkitektura eta barne diseinu proiektuen eragin positiboaren berri emateko moduak ezagutzea, eta jasangarritasunean aitzindari izatea.

Esperientzia arrakastatsuak partekatzea: GJHak integratu dituzten arkitektura proiektuen kasu errealak aztertzea, ekimen berriak inspiratzeko.

Eragin soziala eta ingurumenekoa sustatzea: GJHak ingurune bidezkoago eta jasangarriagoak sortzeko duen garrantziaz kontzientziaztea.

Antolakuntza



Lankidetzak



Zuzendaritza



Xabier Perez de Arenaza Salas

Habic Cluster del equipamiento, madera y diseño del País Vasco, Coordinador sector madera

Arquitecto por la Universidad de Navarra (2012) y Máster en eficiencia energética y sostenibilidad por la EHU/UPV (2013), su carrera profesional ha estado ligada a la innovación en el ámbito de la arquitectura y el urbanismo. Durante los años 2013 y 2014 lideró el proyecto uTree, el desarrollo de mobiliario urbano con capacidad de generación eléctrica y colaboró con distintos estudios de arquitectura y empresas. Desde 2015 forma parte del equipo de Habic, Cluster del Equipamiento, Madera y Diseño de Euskadi, donde coordina distintos proyectos relacionados con la innovación empresarial en el sector de fabricantes de productos para el equipamiento de edificios. Ha colaborado con empresas, arquitectos e interioristas para fomentar el uso de la madera en los proyectos de arquitectura e interiorismo, así como para mejorar las capacidades de las empresas y los productos en madera

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-19 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala	35,00 EUR
Habic klusterreko bazkideak	35,00 EUR

Kokalekua

1. EGUNA Miramar Jauregia eta 2. EGUNA HABIC Enpresa Gela (UPV/EHUko Arkitektura Eskola Teknikoa)

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia / Oñati Plaza, 2 20018 Donostia-San Sebastián

Gipuzkoa